

# Datozen hamarkadetako apustua: itsasoa energi iturri



Lau hamarkadatan 330.000 turbina paratuko dira itsasoan, aurreikusi denez.

ITSASOTIK ENERGIA LORTZEA oso nekeza da izan da orain arte, batez ere itsas hondoan lan egitea ez delako erraza; han jarritako gailuak azkar herdoiltzen dira.

Oraingoan, itsasoetako korranteak edo mareen mugimenduak baliatzen dituzten bi zentral daude munduan. Bata Frantziako La Rancen dago eta 240 megawatteko potentzia du; besteak, Hego Koreako Sihwa lakuaren ondoan dagoenak, 254 megawattekoa. Zentral horietan, diametro handi samarra duten gurpil batzuen bidez lortzen da energia. Itsasoko ur korranteek

gurpilak higitzen dituzte, eta higidura horrek elektrizitatea sortzen du.

Aurten beste bultzadaxo bat emango zaio sistemari: Britainiako Ouesant irlan hamar metroko diametroa duen turbina itsasoratuko dute 55 metroko sakoneran. Haren bitartez, megawatt bateko potentzia lortuko da. Bi urte barru beste lau turbina itsasoratuko dituzte leku berean; era horretan uharteko behar energetikoen %70 asetzea espero dute.

2050. urterako sistema hori mundu osora hedatzea aurreikusi da. Itsas azpian 330.000 turbina inguru jarriko direla estimatu da, 334.000 megawatteko potentzia sorraraziko dutenak. Hau da, mundu osoko energia beharren %20. ■



# Entzumen arazoak gainditzeko, Google-en betaurrekoak

GOOGLE GLASS, Google enpresaren proiektu teknologikoetako bat da. Betaurreko eran erabiliko da eta bideoak ikusteko eta transmititzeko ez ezik, musika entzuteko ere balio izango du.

Esandakoa jakina da orain hilabete batzuetatik, baina berrikuntza bat iragarri dute musika entzuteko eran: antza, soinua ez da airetik belarrira ailegatuko, hezur bidezko transmisioz baizik. Hala, entzumen arazoak dituzten askok eta askok musika era naturalen entzuteko aukera izango dute. ■



WWW.TWYLAH.COM



## Gizakiaren jatorriaren bila, beste urrats bat

*Australopithecus sediba* espeziearen aztarnek tximinoen zein gizakien ezaugarriak azaltzen dituzte. Gure jatorrien bila ari direnentzat oso informazio baliagarria eskaintzen dute Hegoafrikan berriki aurkitutako hezurrek.

ttiki.com/49557  
(Euskaraz)

## Eguzki-jarduerak aurora boreal ikusgarriak sortzen ditu

Behin baino gehiagotan adierazi digute eguzkiaren jardura hazi egin dela eta ondorioz sortzen diren izpi eta uhinek gure komunikazio sistemiei eragiten dietela, besteak beste. Baina zeruan irudi ikusgarriak ere uzten dizkigute eguzkiko leherketek. Hona hemen Norvegiar hartutako irudiak.

ttiki.com/49558  
(Gaztelaniaz)

## Antartikako izotza, uste baino azkarrago urtzen

364 metroko sakoneran hartutako laginei esker jakin denez, Antartikako izotzaren udako urtze-abiadura orain 600 urtekoa baino hamar aldiz azkarragoa da gaur egun. Itsasoko izotz galera azken 50 urteetako azkarraren izaten ari da, nazioarteko ikertzaile talde batek adierazi duenez.

ttiki.com/49559  
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

**iametza**

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16